

Ikuskizunak
KontzertuakBiltzarrak
eta ekitaldiakBaluarte
KanalaAretoak eta
zerbitzuakBaluarte
Fundazioa

Urtero bezala, ohiko Jaiotzen erakusketa Baluartera bueltatzen da

2020th, azaroaren 16a



Aurtengo Eguberriak bereziak eta desberdinak izango dira baina, tradizioari leial, Iruñeko Jaiotzazale Elkartek Jaiotzak Baluarten erakusketa gurera ekarriko du ondoz-ondoko hamaikagarren urtez. Erakusketak abenduaren 22an zabalduko ditu ateak eta osasun egoerak baldintzatuta, neurri bereziak hartuko dira: tarte handigagoa, jaiotza gutxiago, gel hidroalkolikoa edo gehieneko edukiera kontrola. Erakusketan diorama ezberdinak, Jaiotza irlak, Jaiotzak kutxatila itxietan (aurretik begiratzeko), irekiak (4 aldeetatik ikuskatzeko), Jaiotza txikiak, etabar, ikusi ahaliko dira. Paisaia ezberdinekin, ibaiak, mendiak hala nola Jesusen Jaiotzaren ohiko irudiak, artzainak, Errege Magoak, animaliak... Haurrei eskainitako jaiotza ez da faltako, Baluarten aurreko urteotan ikusi ahal izan den beste baten bat edota 90. hamarkadan eskaiolaz egindako bat ere.

Erakusketaren ordutegi orokorra 10:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 21:00etara izango da. Halere, abenduaren 2an, 11n eta 18an soilik arratsaldean bisitatu ahaliko da, eta abenduaren 24an eta 31n arratsaldeko 19.00etan itxiko da. 14 urtetik gorakoek 3€ ordaindu beharko dituzte sarrera bakoitzeko; 7-14 urte bitartekoek, euro 1; eta 7 urtetik beherakoek, doan.



BERRIAK BALUARTE



Navarra Televisión Sarien banaketa ekitaldia azaroaren 25ean Baluarten izango da publikorik gabe

Azken hilabeteotan Nafarroan nabarmendu diren gazte, gizarte, kirol, kultura eta enpresa baloreak eta "ereduzko herria" sarituko dira



Urtero bezala, ohiko Jaiotzen erakusketa Baluartera bueltatzen da

Abenduaren 2an ateak zabalduko dituen erakusketak neurri bereziak hartuko ditu: tarte handigagoa, jaiotza gutxiago edo edukiera kontrola



Chica Sobresalto eta Lemon y Tal taldearen kontzertua abenduaren 22ra atzeratzen da

ANAIM Club Fest Jaialdiaren baitan azaroaren 14an iragarritako emanaldirako sarrerak data berrirako erabili daitezke



Nafarroako Orkestraren hirugarren abonamendu kontzertua Navarra Televisionek azaroaren 21ean igorriko du

José Miguel Pérez-Sierrak zuzenduko duen emanaldian, Dmytro Choni pianistaren partaidetzarekin, Chopin eta Rachmaninoff-en obrak eskainiko ditu orkestrak



'The Music of Morricone, Williams, Zimmer' kontzertua urtarrilaren 23ra atzeratzen da

Royal Film Concert Orkestrak azaroaren 21ean eskaini behar zuen emanaldirako sarrerak data berrirako balio dute



Nafarroako Abesbatzen Elkarteak azaroaren 22an antolatutako kontzertua 19:00etara aurreratzen da

Emanaldian, NAE-ko Koru Sinfonikoa, Iruñako Gazte Orkestrak eta lau bakarlarik Hilarión Eslavaren *Misa de Difuntos* opus 143 eta *Libera Me* opus 127 obrak interpretatuko dituzte



Santas Pascuas Jaialdiak urtarrilaren hiru kontzertu ekarriko ditu Baluartera

Programazioaren baitan, gurean Silvia Pérez Cruz (urt 3an), María José Llergo (8an) eta María Arnal i Marcel Bagés (9an) izango ditugu. Sarrerak salgai daude jada

BALUARTE
CÁMARA

Estilo fusioa Baluarte Cámaran

Zikloa Ganbera Aretoan ospatuko da apirilko azken bi asteazkenetan eta maiatzeko bi lehenengoetan

1 2 > >>



Hizkuntza : [español](#) [euskara](#) [english](#) [français](#)

Kontaktatu | Prentsa aretoa | Legezko oharra | Pribatasun adierazpena | Irigarritasuna | Web Mapa | Kalitatea

Derecho de acceso a información pública

